

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Memoria Historikoko Tokien Foru Legearen proiektuari buruzko lehen partaidetza-jardunaldia ospatu da

*Legeak tokietako memoria-ondarea babestea du helburu eta bertan parte hartu dute instituzioetako, elkarteetako eta hiritarren ordezkariak*

Ostirala, 2018.eko otsailak 16

Gaur ospatu da, ostiralez, Nafarroako Memoria Historikoko Tokien Foru Legearen proiektua lantzeko partaidetza-jardunaldietako lehenengoa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak antolatua Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bitartez.



Agintariak Museoaren aurrean, Nafarroako Memoria Historikoko Tokien Legearen proiektuari buruzko lehen saioan.

Bertan parte hartu dute Ana Ollok, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, Cristina Zocok, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak, Javier Giraldezek, Andaluziako Juntako Memoria Demokratikoko zuzendari nagusiak eta Jordi Guixék, Europako Memorien Behatokiko (EUROM) zuzendariak.

Hiritarrekin batera parte hartu dute Foru Gobernuako, Nafarroako Parlamentuko, tokiko erakundeetako eta unibertsitateetako ordezkariak, eta bai memoriari lotutako gaietan lanean ari diren elkarteetakoek ere.

Olo kontseilariak esan duenez, "toki hauek adierazten duten memoria-ondarea zaintzea da foru lege honen proiektuaren helburua, bai iraganean izuari lotuak egon zirenak eta bai 1936ko kolpe militarren ondorengo indarkeria sufritu zuten pertsonen oroimenerako eta omenaldirako berriki sortu direnak". Hori dela eta, "Nafarroako memoria historikoko tokien beharrezko babes- eta seinaleztatze-baldintzak arautu beharko ditu legeak; eta, baita, horien babes-maila desberdinak eta administrazio publikoen eskubide eta betebeharrak".



Jardunaldiko momentu bat, Ana Olo kontseilariaren presentziarekin.

Babesaz gain, memoria horri balioan jarri eta berau zabaltzera zuzendutako jardunak izango dira legeak jasoko duen aspektuetako bigarrena. "Izuarri lotutako espazioak bake- eta bizikidetzeta-balioak transmititzen dituzten toki bilakatzeak, etorkizuneko belaunaldiei begira bereziki, belaunaldien arteko transmisioak, hain garrantzitsua denak memoria-politika publikoetan, garrantzia berezia duen balio sinbolikoa hartzen du memoriaren tokien inguruan lan egiterako orduan", Ana Ollok ondorioztatu duenez.